

ZUZENDARITZAREN SOLDATAK

Patronatuko ordezkarien ordainsariak eta altan emandako pertsonak zuzendaritzan.

Fundazioaren Patronatua 20 pertonez osatua dago, 2016ko abenduaren 31an, 12 gizonezko eta 8 emakumezko direlarik. Gehiengoa, pertsona juridikoak ordezkatzuz jarduten da bertan, Kooperatibak edo GKEak. Lau pertsona Fundazioaren langileak ordezkatzeko daude bertan eta bat boluntarioen izenean.

Pertsona hauek, Patronatuaren kide bezala ez dute bere karguagatik inongo ordainsaririk jasotzen.

Fundazioak ez ditu aurrez aipatutako kideentzako eta Fundazioko administrazio organoetako egungo kide zein kide ohientzako bizi aseguru edo pentsio obligaziorik, ez eta berme obligaziorik.

2016ko abenduaren 31an, zuzendaritzako langile nagusiek soldata gordin gisara jasotako diru kantitatea 45 mila eurokoa da. 2016eko abenduaren 31an, elkarteko zuzendaritza hau pertsona batek osatzen du, gizonezkoa dena.